



Presta dezagun Europa COVID-19aren aldaeretakarako: HERA inkubagailua

2021EKO OTSAILA

Europar Batasuna jo eta ke ari da lanean bermatzeko **europar guztiek ahalik eta lasterren eskuratu ahal izatea COVID-19ren aurkako txertoak**. Baimendutako txertoak eraginkorrak dira gaur egungo birusaren aurka.

Aldi berean, birusaren **aldaera berriei aurre egiteko** prestatu behar dugu, aldaera horien aurkako txerto eraginkorrak garatuz eta ekoiztuz, handizka eta azkar.

Horrexegatik, Europako Batzordeak **HERA inkubagailua** jarri du martxan. Helburua da zientzia, industria eta aginte publikoak bide beretik abiaraztea, eta eskura ditugun baliabide guztiak aprobetxatzea, Europak mehatxu honi erantzun ahal izan diezaion.



GILTZARRIAK PRESTAKUNTZA BULTZATZEKO ETA GAITASUN HANDIAGOA IZAN DEZAGUN ALDAERETARA EGOKITZEN DIREN TXERTOAK GARATZEKO



1. BIRUSAREN ALDAERA BERRIAK ATZEMATEA ETA ANALIZATZEA

Gaitasun handiagoa behar dugu aldaeren ezaugarriak zehazteko (genoma sekuentziatzea).

Ahalbidetu behar da aldaera berriei buruzko **informazioa etengabe trukitzea** txerto berri edo egokituak lantzen ari diren alderdi interesdun guztiekin.

Txertoekiko erresistenteak diren aldaeren artean, identifikatzea eta adostea zein diren kezkarrienak.



2. GAUR EGUNGO TXERTOAK EZ BADIRA NAHIKOA ERAGINKORRAK ALDAERA BERRIEN AURKA, TXERTO BERRIAK GARATU BEHAR DIRA

Txertoak egokitzen edo txerto berriak garatzen lan egiten duten **enpresei laguntzea**.

Saiakuntza klinikoak erraztea: EB mailako saiakuntza klinikoaren sare bat abian jartzea (VACCELERATE).

Txerto egokituak edo berriak garatzeko **teknologia berriak bultzatzea**.



3. ALDAERETARAKO EGOKITUTAKO TXERTOAK EKOIZTEA, BEHAR BEZAIN BESTE ETA BEHAR BEZAIN AZKAR

Txertoak **aurretiaz eskuratzeko sinaturik dauden akordioak eguneratzea** (APA), edo APA berriak izenpetzea txerto egokituak lantzen dituzten fabrikatzaileekin.

Enpresek plan sinesgarri bat aurkeztu behar dute, EBn txertoak ekoizteko duten benetako gaitasuna egiaztatzeko eta behar diren kopuruak behar bezain azkar emateko.

ETA, HORRETARAKO, ZER EGIN BEHARKO DU EB-K?

ARAUKETA-PROZEDURAK BIZKORTU

- **Bizkorrago onartu behar ditu** txerto egokituak.
- Begiratu behar du ea **larrialdietarako txerto-baimena** EB guztirako bideratu daitekeen.
- **Orientabide batzuk eman datuen arloko betekizunei buruz.**
- Ahaleginak egin **saiakuntza klinikoetan umeak ere sar ditzaten.**

INDUSTRIAREN EKOIZPENA HANDIAGOTZEA

- **Horniketa-katea ikuskatzea** eta ekoizpenak izaten dituen ito-estuguneak askatzen asmatzea.
- Aldaera berrien aurka **txerto berriak sortzen laguntzea.**
- **Lizentziak emateko borondatezko mekanismo bat garatzea**, teknologiaren transferentzia errazteko.
- **Fabrikazio-ahalmena hobetzea**, «EU Fab» proiektuaren bidez.

Berehalako konponbide horietan oinarrituta, EBk **Larrialdi Sanitarioen aurrean Prestatzeko eta Erantzuteko Europako Agintaritzak (HERA)** sortuko du. HERAk egiturazko sistema bat emango dio EBri, etorkizuneko pandemiei aurrea hartu eta hobeto erantzuteko.

